



B E R A K O U D A L A

BERAKO MUGIKORTASUNERAKO EKINTZA PLANA

ADDED-VALUE - INTELLIGENT ENERGY EUROPE PROIEKTUA

EKINTZA PLANA

Berako Mugikortasunerako Ekintza Planaren zirriborro hau herrian egindako partaidetza- eta azterketa-prozesu oso baten emaitza da. Egindako lanaren ondorioz, dokumentu honen aurretik beste dokumentu batzuk izan dira, hala nola Mugikortasun Diagnostika eta Mugikortasun Ituna.

Aipatutako Berako Mugikortasun Itunean finkatutako printzipio eta helburuei jarraituz, parte hartzeko prozesuan zehar parte-hartzaileek proposatu dituzten neurriak edo ekintzak jasotzen dira dokumentu honetan, eta talde honen ustez, inplementa daitezke eta inplementatu egin behar dira.

Hemen aipatutako jarduerak eragile inplikatuaren konpromisoa behar dute eta Udalaren gidaritzapean eratu behar den Mugikortasun Foroaren barruan sortzen diren geroko bileretan lortu beharko da hori.

Itunaren dokumentuan jasotako eskema berarekin segituz, jarduerak azalduko dira jarraian, kontuan izanda zer helburu duten eta zer esparruren barruan dauden.

Errazak direlako, kostu ekonomiko eskasa dutelako edo garrantzitsuak eta urgentiak direlako, epe laburrean abian jar daitezkeen neurriak identifikatu eta azpimarratu ere nahi izan dira. Neurri horiek kolore desberdinarekin eta amaieran (*) sinboloarekin nabarmendu dira testuan.



Intelligent Energy  Europe



BERAKO MUGIKORTASUNERAKO EKINTZA PLANA

ADDED-VALUE - INTELLIGENT ENERGY EUROPE PROIEKTUA

HELBURU UNIMODALAK

1. Oinezkoen mugikortasuna

Oinezkoen mugikortasunak baldintza hobek izateko, hauxe proposatzen da:

Udalari:

1.1. Oinezkoen espazioen xehetasun-azterketa bat egitea, honetarako: ibilbideei jarraitutasuna, linealtasuna eta konexioa ematea, bereziki jarduera-zentroekin lotzen diren horiei, hala nola ikastetxei, kiroldegia eta industrialdeei. (*)

1.2. Berako Udal Planean espaloiaren kalitatearen eta zabaleraren baldintza minimoak txertatzea eta xehetasun-azterketa bat egitea, alderdi horiei dagokienez dauden espaloiak hobetzeko premiak identifikatzeko.

1.3. Oinezkoak igarotzea eragozten duten oztopoak ezabatzea, hala nola "Euskaldunako" semaforoa edo espaloietako trafikoko zutoinak edo seinaleak birkokatzea, edo espaloietan aparkatutako ibilgailuak salatzea.

1.4. Nafarroako Gobernuarekin eta Lesakako Udalarekin kudeaketa aproposak egitea N121A errepidearen Alkaiagako sarbidea egokitzeko, Bide Berdearekiko konexioa Lesakako noranzkoan hobetzeko eta oinezkoentzako bazterbide ibilgarriak egokitzea Zalaingo oinezkoen gaineko pasabidearekiko konexioan.

1.5. Dauden oinezkoen pasabideak mailan egokitzea, espaloiak jaitziz edo pasabideak (pilotalekua, Mukixu, Agerra farmazia, Altzate..) jasoz eta "berlindarrak" edo antzeko abiadura-mugatzaileen bidez babestea. Oinezkoen pasabideetako argiak hobetzea.

1.6. Gaineko pasabidea gaitzea suhiltzaileen aparkalekutik Altzate karrikara.

1.7. Haur Eskolaren eta Ricardo Barojako eta kiroldegiko sarbidearen artean oinezkoentzako gunea gaitzea.

BERAKO MUGIKORTASUNERAKO EKINTZA PLANA

ADDED-VALUE - INTELLIGENT ENERGY EUROPE PROIEKTUA

2. Mugikortasuna bizikletan

Garraiobide guztien artean bizikletak ohiko erabilera handiagoa izateko, hauxe proposatzen da:

Udalari:

2.1. Bidaia gehien erakartzen duten puntuetan, hala nola kiroldegian, bizikleta-aparkaleku estaliak egokitzea (adibidez, Altzaten ikastolaren eta plazaren ondoan).(*)

2.2. Euskaldunako bidegurutzean **biribilgune** bat egokitzea, ahal bada zoladura aldatuta. Nafarroako Gobernuarekin kudeatu.

2.3. Bizikletak igarotzea erraztea, “Txurruteko” semaforoan bizikletetarako semaforo keinukaria akoplatuz.

2.4. Laneko ibilgailu gisa bizikletaren erabilera sustatzea, batik bat udaleko langileen artean.

Sindikatuiei:

2.5. Enpresei eta erakundeei bizikleta-aparkaleku seguru eta babestuak eta arropa aldatzeko aldagela txikiak izatea eskatzea.

3. Mugikortasuna garraio kolektiboan

Garraio pribatua baino gehiago garraio publikoa erabiltzea sustatzeko, hauxe proposatzen da:

Udalari:

3.1. Kudeaketa aproposak egitea Bortzirietako herri guztiei zerbitzua emanen dien autobus-zerbitzu erkidea abian jartzeko.(*)
Garraio publikoa Irunera, Donostiara eta Iruñera.

Sindikatuiei:

3.2. Lankidetzan azterketa bat egitea Beratik industrialdeetara doan autobus-zerbitzu baten eskariari buruz.

BERAKO MUGIKORTASUNERAKO EKINTZA PLANA

ADDED-VALUE - INTELLIGENT ENERGY EUROPE PROIEKTUA

4. Mugikortasuna garraio pribatua (zirkulazioa)

Beste garraio-modu iraunkorrago batzuetara jotzea errazteko eta euren arteko mugikortasuna sustatzeko neurriak ezarriz, autoaren erabilera arrazionala sustatzeko, hauxe proposatzen da:

Udalari:

4.1. Herrigune osoan ibilgailuen abiadura murrizten duten neurriak ezartzea, hala nola gaineko pasabideak (1.5 puntu) edo “berlindarrak”.

Sindikatuari:

4.2. Azterketa bat egitea lantokietara eta ikastegietara, unibertsitatera kasu, joateko auto partekatuko sistema bat ezartzeko aukera aztertzeke.

5. Mugikortasuna garraio pribatua (aparkatzea)

Aparkaleku-eskaintza eta dinamismo ekonomikoa, txandaketaren eta egoiliarren eskaria, modu iraunkorrenetarako sarbide- eta mugikortasun-baldintza onak bateratzeko:

Udalari:

5.1. Hasteko, Alzate plazan txandaketa-aparkalekuak gaitzea, doako parkimetro baten bidez.

5.2. Aparkaleku estrategikoagoak ezabatzea konpentsatzeko disuasioko aparkaleku-plazak gaitzea.

5.3. Espaloietan aparkatutako ibilgailuei zehatze-neurri eraginkorrak aplikatzea. (*)

5.4. Salaketek eraginik ez badute, Alzate karrikan pibotak edo oztopo-zutoinak jartzea.

5.5. Herrigunean ibilgailu astunek aparkatzea debekatzea.

5.6. Adineko pertsonei “elbarri-txartelak” emateko aukera aztertzea.

6. Salgaien banaketa hirian

Salgaien banaketa ordenatua eta tokiko mugikortasun-sisteman eragin minimokoa bermatzeko:

BERAKO MUGIKORTASUNERAKO EKINTZA PLANA

ADDED-VALUE - INTELLIGENT ENERGY EUROPE PROIEKTUA

Udalari:

6.1. Altzate karrikan zamalanetarako zona bat gaitzea eta beste lekuren batean eskaria aztertzea.

6.2. Nafarroako Gobernuarekin negoziatzea Lizuniagatik eta Ibardinetik datorren trafiko astuna mugatzeko (destino behartua edo inguruabar berezietakoa duena izan ezik).

HELBURU MULTIMODALAK

7. Bide-segurtasuna

Istripu-tasak murriztuz eta garraio-modu bakoitzarentzat izendatutako espazio publikoa errespetatuz bide-segurtasuna hobetzeko, hauxe iradokitzen da:

Udalari:

7.1. Oinezko, ziklista eta garraio kolektiboaren erabiltzaileen mugikortasuna eragozten duten arau-hausteengatik zehapenak gogortzea. (*)

7.2. Ibilgailuak igarotzeko abiadura herrigune osoan arautzea (50 km/h Bidasoa Karrikan eta Eztegara pasealekuan. 30 km/h gainerakoan: Altzate aldean, Ilekuetan, Itzean, Legian, Matzadan, Kanttonberrin, Iturlandetan, Ugalzubian, Hegoalden, Julio Caro Barojan, Agerra auzoan...(*))

7.3. Zeharbide nagusietan trafikoa baretzeko neurriak ezartzea, hala nola "berlindarrak" oinezkoen pasabideen aurretik. (*)

7.4. Udal-ordenantzak eguneratzea Itun honetan adierazitako irizpideetara egokitzeko.

BERAKO MUGIKORTASUNERAKO EKINTZA PLANA

ADDED-VALUE - INTELLIGENT ENERGY EUROPE PROIEKTUA

8. Informazioa, prestakuntza eta heziketa

Beratarrak Mugikortasun Itunean ezarritako printzipioak eta helburuak lortzen sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko:

Udalari:

8.1. Komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpaina bat egitea mugikortasun-modu iraunkorrenak sustatzeko. (*)

8.2. Zenbait eragilerekin lankidetzan, mugikortasun-modu ez-motordunak barne hartzen dituzten alorreko eta berariazko kanpainak egitea. (*)

Ikastetxeei:

8.3. “Eskola-bidea” abian jartzea sustatzea, ikasle, guraso-elkarte eta gainerako boluntarioen inplikazioarekin, eta ibilgailu pribatua erabiltzeko sustagarria kentzea.

8.4. Ingurune naturaleko eskola-jardueren barruan bizikleta sartzea, irteerak egiteko.

8.5. Ikasleei bizikletari buruzko bide-segurtasuneko eta -hezkuntzako ikastaroak eskaintzea, baita oinarritzko mekanika-ikastaroak ere.

8.6. Ikasleak etxetik ikastetxeetara eta alderantziz taldean eta oinez joaten has daitezela sustatzea.

Guraso-elkarteei:

8.6. “Eskola-bidea” abian jartzea.

Kiroldegiko kudeatzaileei:

8.7. Kiroldegiarekin eta kirol-klubekin batera “Gimnasioa etxean hasten da” kanpaina abian jartzea eta Mugikortasun Tailerrean proposatutako ekimenekin aurrera egitea.

Merkatarien Elkarteari:

8.8. Udalarekin lankidetzan kanpaina bat egitea erosketak oinez edo bizikletaz egitea sustatzeko eta autoa erabiltzeko sustagarria kentzeko.

BERAKO MUGIKORTASUNERAKO EKINTZA PLANA

ADDED-VALUE - INTELLIGENT ENERGY EUROPE PROIEKTUA

Osasun Etxeari:

8.9. Udalarekin lankidetzan kanpaina bat abian jartzea mugikortasun ez-motordunaren onurei buruz.

Gazte Asanbladari:

8.10. Bizikletaren oinarrizko mekanika-ikastaroak antolatzea.

8.11. Gazteenen eredu izatea, herrian oinez edo bizikletaz ibiliz.

Beratarra eta Gure Txokoa txirrindulari elkarteei:

8.12. Herriko txirrindulari-jardueretan inplikatzeta.

8.13. Bazkideen konpromisoa bilatzea herriko joan-etorriak bizikletaz egiteko.